

Aingeru Goardakoa

Gizaldi honen hasieran bazen Ataungo San Gregorio, Lauztierrekako auzoan, Aingeru Goardakoa esaten zioten mutil gazte bat. Oso mutil ona zen eta edozeini lagunduko ziona, eta horregatik esaten omen zioten Aingeru Goardakoa. Gaitz txar batek harrapatu zuen mutil hori, eta hil egin zen. San Gregorioko kanposantua Lauztierreka bidean dago, eta han lur eman zioten.

Auzo hartan bertan –Lauztiazpiko baserrian-, bizi zen beste mutil gazte bat, harro samarra eta parrandan ere gustatzen zitzaiona. Jai gau batean, ardoa dezente edan eta gero, sutegiko tabernatik atera eta, abiatu zen mutil gazte hori bere etxera –Lauztiazpikora-, joateko.

Aingeru Goardakoa hil berria zen eta, horregatik, behin Larruntza pasatu zuenez gero, Lauztiazpiko mutil hori hoska hasi omen zen:

-Aingeru Goardakoa baldin bahaiz, azal hasi!

Mutil horren aurretik, bazihoan beste gizon bat, Artingo Joan Antonio, hau ere sutegiko tabernatik. Biek kanposantuko ate ondo-ondotik pasatu beharra zeukaten.

Aurrenetik Joan Antonio ikaratu egin omen zen garai hartan halako hotsak entzutean, baina konturatu zenean beste hura zein zen, isilarazi behar zuela pentsatu omen zuen. Kanposantuko ate ondora iristean, erantzi zituen prakak eta txamarra, alkandora eta gantzontzilo hutsean geldituz. Joan Antoniok ehunezko alkandora zuri-zuria zeraman.

Igo zen ate gainera, eta gurutzearen atzeko aldean ezkutatu zen, bestea iritsi artean.

Mutil gazte hura iritsi zenean hots eginez:

-Aingeru Goardakoa baldin bahaiz azal hasi!

Joan Antonio jarri zen gurutze gainean bi besoak zabal-zabal zituela, eta erantzun zion:

-Zer behar diok Aingeru Goardakoari!

Mutil gizajoa, hitz haiek entzutean, eta izugarri hura ikustean, salto egin sasi tartetik, eta Muño aldera joan omen zen, Aingeru Goardakoaren arima atzetik zuelakoan.

Joan Antonio ere nahiko lanaren joan omen zen bere etxera. Geroz jakin omen zuten, Lauztiazpiko mutil hura, Urrutsu mendi aldetik buelta emanda etorri zela bere etxera. Zortzi egun baino gehiago egon omen zen bere onera etorri gabe.

Ama zenari entzuna.